

2020-21 ikasturtea

## LHko Guraso Batzordea: 5. buletina (2021.02.03)

LHko Guraso Batzordearen 2020-2021 ikasturteko bosgarren bileran ondorengo gaiak landu dira.

### **Baso-eskola**

#### GURASOENTZAKO BISITAK BERTAN BEHERA

Urtarrilaren erdialderako Ikastolako gurasoek baso-eskola ezagutzeko antolatutako bisitak bertan behera geratu ziren jende askok izena eman eta COVID-19aren eraginez nahi bezala egiteko aukerarik ez zelako izan. Bisitak udaberri aldera egitea da asmoa, familien zein Ikastolako profesionalen helburuak eta desioak betetzeko proposamena eginez.

#### LH4, LH5 ETA LH6KO GURASOEN ESKAERA

Ikasle guztiakin baso-eskolan programazio didaktikoak lantzea zaila dela ulertzen da, baina LH4tik LH6rako ikasleekin gutxienez saio bat antolatzea eskatzen da, basoa ezagutu eta proiektuaren parte direla sentitu dezaten.

### **Ikasleen Irteera Profila: gurasoen parte-hartzea definizio prozesuan**

Gurasoek begi onez jaso dute ideia eta plangintza zehatzagoa izatean jarriko da martxan.

### **Ikastolako tarifa eta beka sistemaren gaineko hausnarketa**

Ikastolako tarifak eta beka sistema berraztertzen ari da Ikastolako bideragarritasun batzordea, Artezkaritzak hala eskatuta. Aurtengo Ohiko Batzar Orokorrean proposamen bat aurkeztuko da eta, proposamen hori gurasoei ondo azaltzeko eta partekatzeko, Guraso Batzorde berezi bat deituko da Ohiko Batzar Orokorra egin baino lehen. Data eta tokia oraindik zehaztu gabe daude. Ezarri bezain pronto jakinaraziko dira.

### **Kilometroak 2023**

2023ko Kilometroak Orereta Ikastolak antolatzeko aukera mahai gainean dago. Guraso Batzordeak gaia azter daitekeela uste du. Lan handia ekarriko lukeen arren, animoz hartu da ideia. Festa eredu berria ari denez sortzen, horretarako beharrezkoa izango den sormena aipatu da bereziki.

### **Teknologia berriak eta sare sozialak: ikasle zein familientzako formazioa**

Ikastolak, beharra ikusita, teknologia berrien eta sare sozialen gaineko formazio-saioak antolatuko ditu langile, ikasle zein familientzako. Gurasoek oso begi onez jaso dute asmoa.

### **Laburrak**

Jangelako aldaketarekin (jateko hiru txanda izatetik bi txanda izatera pasatzearekin) oso gustura dago jendea eta Eskola Kirola martxan egotea ere oso onuragarria dela aipatu da. Kirolari lotuta, Urdaburu Mendizale Elkartearekin elkarlanean eskaintzen diren irteerak berriz martxan jartzeko aukerarik badagoen jakin nahi da.

Curso 2020-21

## Consejo de Madres y Padres de LH: boletín nº5 (03.02.2021)

En la quinta reunión de la Comisión de Madres y Padres de LH del curso 2020-2021 se han tratado los siguientes temas.

### Baso-eskola

#### SUSPENDIDAS LAS VISITAS PARA LAS FAMILIAS

Las visitas de mediados de enero para que las madres y padres conocieran la baso-eskola se suspendieron por la gran cantidad de familias inscritas y porque el COVID-19 no permitía llevarlas a cabo como se deseaba. La idea es realizar las visitas hacia primavera, intentando cumplir en las mismas los objetivos y deseos tanto de las familias como de las y los profesionales de la Ikastola.

#### SOLICITUD DE LAS FAMILIAS DE LH4, LH5 Y LH6

Se entiende que es difícil trabajar programaciones didácticas en la baso-eskola con todos los alumnos y alumnas, pero se pide que se organice al menos una sesión con las y los alumnos de LH, LH5 y LH6 para que conozcan el bosque y se sientan parte del proyecto.

### Perfil de Salida del Alumnado: participación de las familias en el proceso de definición

Las familias han recibido la idea con buenos ojos. El proceso se pondrá en marcha cuando la mecánica esté más definida.

### Estudio de las tarifas y el sistema de becas de la Ikastola

La comisión de viabilidad de la Ikastola está revisando las tarifas y el sistema de becas, a petición del Consejo Rector. En la Asamblea General Ordinaria de este año se presentará una propuesta, propuesta que será presentada y contrastada con las familias de la Ikastola con anterioridad en una reunión extraordinaria de las Comisiones de Padres y Madres. La fecha y hora de esta última reunión están por determinar. Se comunicarán tan pronto como se establezcan.

### Kilometroak 2023

Está sobre la mesa la opción de que Orereta Ikastola organice Kilometroak 2023. La Comisión de Padres y Madres cree que se puede estudiar la opción. Aunque supondría un trabajo considerable, la idea se ha tomado con ánimo e ilusión. Estando en proceso la creación de un nuevo modelo de fiesta, se ha subrayado sobre todo la creatividad que será necesaria para todo ello.

### Nuevas tecnologías y redes sociales: formación para alumnado y familias

La Ikastola, detectada una necesidad, organizará sesiones de formación sobre nuevas tecnologías y redes sociales para trabajadores, alumnado y familias. Los padres y madres han recibido la propuesta con muy buenos ojos.

## Breves

Se ha mencionado que la gente está muy satisfecha con el cambio del comedor (pasar de tres a dos turnos para comer) y que la Eskola Kirola esté en marcha es muy beneficioso. En relación al deporte, se quiere conocer la posibilidad de reanudar las salidas que se ofrecen en colaboración con Urdaburu Mendizale Elkartea.